



Marta Agirre
Alaitz Amezua

Musika5

Irakaslearen gidaliburua

Lehen hezkuntza Hirugarren zikloa



Marta Agirre
Alaitz Amezua

Musika5

Irakaslearen gidaliburua
Lehen Hezkuntza Hirugarren zikloa

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailak onetsia (2016-V-31)*

Diseinua eta maketazioa:

Erein

Barruko ilustrazioak:

Ivan Landa

© Marta Agirre, Alaitz Amezua

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-073-1

L. G.: SS-869/2016

Erein argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzaila:

Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati

T 943 78 33 09 F 943 78 31 33

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

Aurkibidea

KANTU-KONTARI MUSIKA-HEZKUNTZARAKO PROIEKTUA

Kantu-kontari proiektua	6
Proiektuaren ikasmaterialak	7

LEHEN HEZKUNTZA

Oinarrizko konpetentziak eta musika-hezkuntza	10
Lehen hezkuntzako helburu orokorrak	13
Metodologia	14

LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

Hirugarren ziklorako helburu orokorrak	16
Hirugarren ziklorako edukiak	16
Hirugarren ziklorako ebaluazio-irizpideak	18

BOSGARREN MAILA

➤ Bosgarren mailarako helburu didaktikoak	22
➤ Bosgarren mailarako edukien taula	23
➤ Unitateetako atalen azalpen orokorra	24
➤ Bosgarren maila, unitatez unitate	27
1. Unitatea: Üskudar	27
Konpetentziak	28
Edukiak	28
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	31
Ebaluazio-fitxa	58
2. Unitatea: Sakura	59
Konpetentziak	60
Edukiak	60
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	63
Ebaluazio-fitxa	85
3. Unitatea: Indiar merkataria	86
Konpetentziak	87
Edukiak	87
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	90
Ebaluazio-fitxa	115

4. Unitatea: Garota de Ipanema	116
Konpetentziak	117
Edukiak	117
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	120
Ebaluazio-fitxa	152
5. Unitatea: Mede brebre masi ta	153
Konpetentziak	154
Edukiak	154
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	157
Ebaluazio-fitxa	179
6. Unitatea: Opak	180
Konpetentziak	181
Edukiak	181
Jarduerak eta iradokizun didaktikoak	184
Ebaluazio-fitxa	205
➤ Bosgarren mailarako ebaluazio-irizpideak	206

**KANTU-KONTARI
MUSIKA-HEZKUNTZARAKO
PROIEKTUA**

Kantu-kontari proiektua

KANTU-KONTARI musika-hezkuntzarako proiektua Lehen Hezkuntzara bideratutako musika-hezkuntzarako egitasmoa da. Proiektu hau bat dator Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumarekin eta Heziberri 2020 Planarekin, eta han proposatzen diren konpetentzien ikuspegitik abiatzen da.

KANTU-KONTARI proiektuaren xedeak musika irakasteko eta ikasteko prozesuaren baitako irakurketa berezi hau du oinarri:

- Musika-hezkuntza ez da mugatu behar musika-ezagutzaren alderdiak biltzen dituen irakaskuntzara soilik.
- Musika arte-adierazpentzat hartzen da, eta beste arte-adierazpenekin harremanetan jarriko da.
- Musika ez da hartuko irakasgai arin eta osagarritzat, hainbat ezagutza eta konpetentzia lantzeko aukera ematen duen ikasgaitzat baizik.
- Metodologiak, ikasketa esanahidunaren mesedetan eta haurraren garapen orokorra bilatuz, arreta handiz hautatu eta landuko ditu bitartekoak.
- Musika-ikasketaren abiapuntua ikaslearen hurbileko errealitatean sustraituko da.
- Euskal ondarea ez da ikuspuntu folkloristatik landuko, maila pedagogikoa emango zaio eta horretan oinarrituko da.
- Euskaraz sorturiko materiala da.
- Musika historikoak leku nabarmena izango du, haurrek duten musika-estiloen balantza orekatzeko.
- Egungo beharrei erantzun die, bizi ditugun errealitateak eta horien eraginak kontuan izanik.
- Informazioaren eta teknologia digitalaren erabilera bultzatuko da.

Era horretara, KANTU-KONTARI proiektuak musikaren alorrerako material argia eta zehatza sortu du, Oinarrizko Hezkuntzan proposatzen diren helburuak betetzeko asmoz eta landu behar diren konpetentziak bultzatzeko xedez.

Ziklorako eta maila bakoitzerako helburuak zehatz-mehatz azaldu dira, antolaketa eraginkorrragoa izan dadin.

Edukien aukeraketa zaindua da, indarrean den curriculumean oinarritua, eta, haurraren interesen eremutik abiatuta, interes-esparrua zabaltzea izan du helburua. Bestalde, eduki horiek unitatez unitate aurkezten dira, lantzen diren konpetentziekin eta proposatzen diren iradokizun didaktikoekin batera.

“Dinamiko” hitzak laburbiltzen du metodologia. Jardueren eta iradokizun didaktikoen eskaintza zabalak aukera ematen du KANTU-KONTARI proiektuko ikasmaterialak taldearen dinamikara egokitzeko, konpetentziak argi azalduta eta ebaluazio-prozedurak ardatz hartuta betiere. Horri guztiari esker, irakaslearen partaidetza eta aukera pertsonalizatua da, eta, aldi berean,

irakasle bakoitzaren ekarpenetara irekita dago. Horrenbestez, KANTU-KONTARI proiektuaren ametsa egia bihurtzea, hein batean, irakasle eta ikasketa-taldearen balio eta gogoaren esku gelditzen da.

Ebaluazioari dagokionez, ebaluazio-prozesu etengabearen ideia, ikasleen ikaskuntzari eta irakasleen esku-hartzeari lotua, unitate bakoitzeko fitxetan jasota dago. Ebaluazio-fitxa horiek ebaluazio argi eta zehatza egiteko diseinatuta daude, eta ikasturte amaierako ebaluazio-irizpideak dituzte osagarri.

Proiektuaren ikasmaterialak

KANTU-KONTARI hirugarren ziklorako proiektua ikasmaterial hauek osatzen dute:

– Paperezko euskarrian:

Ikaslearen liburua, ikasturte bakoitzeko bat. Ikasleek liburu hori izango dute ardatz ikasturte osoan zehar. Sei unitatek osatzen dute, eta unitate bakoitza lau ataletan banatuta dago: aurkezpen-orria eta aurkezpen-kanta, musika-hizkuntzaren atala, artearen atala eta musika-adierazpenaren atala.

Ikaslearen lan-koadernoa, ikasturte bakoitzerako bat. Ikasleek jasotako ezagutzetan trebatzeko eta horiek finkatzeko bitartekoa da lan-koadernoa. Ikaslearen liburuko eskemari jarraituz, bakarka egiteko ariketa osagarriak eskaintzen dira, baita gogoeta eta hausnarketara bultzatzen duten egungo errealitateko gaiak ere.

Txirula-koadernoa, ziklorako bat. Liburuaren eta lan-koadernoaren bidez landutako musika-ezagutzak txirularekin trebatzeko, finkatzeko, barneratzeko eta musika eginez gozatzeko izango du ikasleak koaderno hau.

Irakaslearen gidaliburua, ikasturte bakoitzeko bat. Ikaslearen liburuko eta lan-koadernoko ariketen azalpenak modu sekuentzialean eskaintzeaz gain, hainbat iradokizun didaktiko eransten dira. Bestalde, helburuek, edukiek, horien sekuentzializazioak, lantzen diren kompetentziek eta ebaluazio-fitxek osatzen dute gidaliburua.

– Euskarri digitalean:

Irakaslearen gidaliburua, ikasturte bakoitzeko bat. Gidaliburuaren lagin bat sarean zintzilikatuta egongo da, pdf formatuan.

Audio-diskoa, ikasturte bakoitzerako bat. Ikaslearen liburuko eta lan-koadernoko ariketetako pistak biltzen ditu.

LEHEN HEZKUNTZA

Konpetentziak eta musika-hezkuntza

Eskakizun konplexuei erantzuteko eta askotariko lanak behar bezala egiteko ahalmena da oinarritzko konpetentziaren funtsa. Horrenbestez, konpetentziek trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizarte arloko nahiz portaeraren alorreko osagaiak hartzen dituzte, eta gizakiek batera erabiltzen dituzte horiek guztiak lanak modu eraginkorrean egiteko. Eskolako eguneroko dinamikan zaila da konpetentzia bat besteetatik bereiztea, denak lantzen baitira, neurri batean. (ELGA, DeSeCo, 2002).

Oinarritzko zehar-konpetentziak

Hona, hemen, oinarritzko zehar-konpetentziak, horietako bakoitzak musika-ezagutzaren jabetze-prozesuan duen eragina zehaztuta eta argituta.

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia

Musikak sentimenduak eta ideiak komunikatzeko duen ahalmen ukaezina dela-eta ezinbestez landuko da konpetentzia hau musika-gelan. Dantza- eta musika-jarduerak egiteko, keinu bidez, kideen behaketaren bidez, hitzez... adostu beharko dituzte ikasleek hainbat aspektu: mugimenduak, tempoak, sarrerak, bukaerak, intentsitateak, iraupenak....

Horrela, ikasleak sentipenak eta ideiak adieraziko ditu, eta aukera izango du komunikazio digitalari esker proiektuak partekatu eta aztertzeko.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Musika-hizkuntzak hamaika aukera eskaintzen dizkigu konpetentzia hau lantzeko: dantza-interpretazioan, musika-tresnen bidezko edo ahozko interpretazioetan, ikasleek memoria-estrategiak landu behar dituzte, beren ahalmen intelektualei etekina atera, egin beharreko lana aurreikusi eta antolatu, eta muga emozionalak gainditu. Bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko motibazioa eduki beharko lukete, eta dagozkien erabakiak hartzeko behar adinako entrenamendua eta ezagutzak izan, oinarritzko eskolaldia amaitzean.

Elkarbizitzarako konpetentzia

Musika-gelan egiten diren jarduerak konpetentzia honetan sakontzeko aukera emango dute, norberaren eta gainerakoen ahalmenak errespetuz onartuz eta beste kultura eta errealitate soziokultural batzuetako musika eta adierazpen kulturalak ezagutuz eta horiez gozatuz.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

Honako hauek dira konpetentzia honek eskatzen dituen trebetasunak eta jarrerak: irmotasunez, erantzukizunez, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko prestasunez, norberaren irizpideei jarraituz, erabakiak hartuz eta ebaluatuz, banakako edo taldeko proiektuak prestatzeko eta aurrera ateratzeko autonomia eta ekimena izatea.

Egoera horiek musika-gelako dinamikan sortzen dira, betiere, ikasleari erabakiak hartzeko aukera ematen zaionean, arriskuak hartzera bultzatzen denean, akatsak egiteko beldurra uxatzen denean eta bere aukerak eta ahalmenak nabarmendu eta aintzat hartzeko espazioak sortzen direnean.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Musikak ideiak eta sentimenduak adierazteko duen indarra kontuan izanik, ikasleak aukera izango du gelan bera izaten ikasteko, bere adierazpenak eta bere ikaskideenak jarrera kritikoz aztertzeko eta errespetuz hartzeko, etengabe hobetzeko bidea jorratuz.

Diziplina barruko konpetentziak

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia

Musikak komunikaziorako konpetentzia lantzen lagunduko du, gaiari lotutako testu eta dokumentu bereziak irakurri eta ulertuz, hainbat kultura-testuingurutan diskurtso mota jakin batzuk erabiliz (azalpenak eta arrazoitzeak, gehienbat) eta musika-hiztegi berezia barneratuz eta erabiliz.

Matematikarako konpetentzia

Musika-proiektu askotan, problema teknikoak konpondu behar izaten dira, eta, horretarako, matematikaren pentsamendu-tresnak eta –baliabideak erabili behar izaten dira. Bestalde, musikaren eta matematikaren arloen arteko loturak nabarmentzen dituzten gaiak lantzean ere garatuko da konpetentzia hau musika-gelan. Adibidez: musikaren metrika, proportzionaltasuna, eskalak eta bitarteak, serie harmonikoak, matematikak erabiltzea konposizio musikalen hainbat arlo kalkulatu eta eratzeke, eta soinuari dagozkion matematikako eta fisikako hainbat kontzeptu ulertzeko.

Zientziarako konpetentzia

Gelan egiten diren ekintzen bitartez, soinuak, isiltasunak eta musikaren erabilerak osasunean, ingurugiroan eta gizakien bizi-kalitatean duten eraginari buruz gogoeta egin eta ondorioak ateratzen dira.

Teknologiarako konpetentzia

Eskolaldi osoan zehar modu arautuan txertatu behar dira baliabide teknologikoak, behar bezalako eragina izan dezaten, bai musikaren arloan, bai beste arloetan ere. Adin honetako ikasleak oso ohituta daude irudiak eta soinuak baliabide teknologikoen bitartez manipulatzeko. Gelan sortutako soinuak eta irudiak grabatu egingo dira, ondoren aztertzeko edo beste ekoizpen handiago batzuetan erabiltzeko. Informazio-iturri digitalen erabilera ere landuko da hainbat musika-jardueratan.

Bestalde, teknologia artearen ikaskuntzaren ekintza-esparrua zabaltzen duen tresnatzat hartu behar da, informazio- eta adierazpen-eremuak hobeto ezagutzeko eta horiekin lan egiteko aukera ematen digun tresnatzat.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Taldeko kide guztien lankidetzaren eta koordinazioaren behar dira musika-gelaren egiten diren jarduerak guztietan (taldean abestu, dantza edo musika-tresnekin musika egin banaka, binaka, talde txikitan...). Beraz, norberaren ideiak adierazi eta gainerako pertsonenak entzun beharko dituzte ikasleek, besteen lekuan jartzeko gai izan beharko dute, eta solaskidearen ikuspuntua ulertzen saiatuko dira. Era horretako trebetasun asko eta asko landuko dira musika egitean.

Arterako konpetentzia

Musika ardatz duela, arte-hezkuntzaren bidez haurrak hobeto ezagutuko du bere ingurua; giza-kiak, artearen bitartez, mundua islatzeko sortu dituen arte-adierazpenen hainbat arlo landuko dira musika-gelaren.

Inguru soziokulturalekiko harremanetarako beharrezkoa den jakinduria eskuratzen du ikasleak musikako ikasgaiaren bidez, eta bere errealitate kulturean parte hartzen laguntzen dio, arteari buruzko jarrera kritikoa sustatuz.

Konpetentzia motorra

Dantzek, psikomotrizitateko jarduerak, interpretazio-jarduerak, musika-tresnen erabilerak, perkusioa jotzeak, kantatzeak eta abarrek ikaslearen autonomia motorra eskatzen dute, maila batean edo bestean, eta, alderdi horretatik, konpetentzia hau eskuratzen lagunduko duten ariketak planteatzen dira musika-gelaren.

Lehen hezkuntzarako helburu orokorrak

236/2015 Dekretutik hartuta:

1. Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta, oro har, herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozatzen laguntzea.
2. Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan.
3. Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estetiko berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte-hizkuntzaren eremua zabaltzea.
4. Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena, irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko.
5. Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta –lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera erakitzailez konpontzea.
6. Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketene eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko.
7. Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizartetalde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuen arteko bideak irekiko dira.
8. Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak gartzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko.
9. Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzea eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpen aintzat hartzea, autoestimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko konpetentzia hobetzeko.
10. Euskal kultura-ondarea eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duten hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak.

Metodologia

Ikasleek askotariko hezibide edo metodoak dituzte aukeran. KANTU-KONTARI proiektuari dagokionez, hauek dira erreferente gisa hartu diren hezibide nagusiak, musika-irakaskuntzan oso erabiliak: metodo aktibo-historikoak, adierazpen-hezibide aktiboa, eta gidatutako ikasketa-prozesuaren hezibidea.

Musika-irakaskuntzarako metodo aktibo-historikoen artean hauexek erabiliko dira gehien: Orff-en heziketa-eredua (musika-instrumentuen bidezko adierazpenean oinarrituta), Wuytacken heziketa-eredua (irudien bidez sormena eta irakurketa bultzatzen ditu, landu beharreko arlo musikalak ikusi eta ulertzeko), Willemsen heziketa-eredua (kantu laburren irakurketa eta erabilera, eskalako bitarteak lantzeko), Dalcroze irakasteredua (mugimenduan oinarritutako ariketak) eta Kodalyren heziketa-eredua (folklorearen erabileran oinarrituta).

Adierazpen-hezibide aktiboei adierazpenen bidez azaltzen diren edukiak eskuratzea ahalbidetzen dute, eta kalitatezko ikasketa-prozesu bat bermatzen du ikasketa emankorra eta esanguratsua izan dadin baldintzak betetzen direnean. Hauexek dira aipatutako baldintzak: esanahi logikoa, psikologikoa eta ikasteko gogoia izatea.

Gidatutako ikasketa-prozesuaren hezibideak irakasteko eta deskubritzeko ekintzak uztartzen ditu, laguntza pedagogikoen bidez ikasleak berak eman diezaien ikasketen edukiei forma.

Hezibide horien uztarketak oso irakaskuntza aktiboa ahalbidetzen du, sormen handikoa eta pertsona bakoitzaren beharrei egokituia, diziplinartekotasuna aintzat hartzen duena eta globalizatzailea.

Hezibide hauek honako jarduera hauetan gauzatzen dira: ahozko interpretazioa, instrumentuen bidezko interpretazioa, gorputz-adierazpena, dantza, entzunaldiak, partitura edo idazkera konbentzionala zein ez-konbentzionala abiapuntutzat duten interpretazioak, adierazpen grafikoak, hautemateko jolas musikalak, soinuak bereiztea, ezberdintzea, imitatzea, sormen musikalerako pentsatutako jarduerak eta abar, unitate didaktiko bakoitzean zehaztuta egongo direnak.

Banakakotasuna da hezkuntza-ekimenen oinarritzko printzipioetako bat. Taldean aniztasun handia izan daiteke, berriz, askotariko arrazoiak direla medio: ezagutzak, trebetasunak, konpetentziak, arrazoi soziokulturalak eta abar. Hori dela-eta, aniztasunaren trataerarako lehen urratsa bereziki zaindu da, musika-ikasketa ikaslearen hurbileko errealitatean sustraituz eta norberaren pentsamendutik abiatuz.

Eskaintzen den material sorta hainbat erritmotara egokitu daiteke. Jarduerak diseinatzeko orduan, kontuan hartu da maila askotako lana egin ahal izateko eskakizuna. Jarduera hauek zailtasun maila bat baino gehiago eskatzen dituzten ekarpenekin osatzen dira; hainbat mailatan oinarritutako lanak elkartuz osatuko dira, beraz.

KANTU-KONTARI proiektuak modu askotako ekarpenez osatutako musika-lan eta dantza-lan esanguratsu eta motibatzaileak sortzeko aukera eskaintzen du, hainbat lan-erritmo eta dinamikatarantz egokitzeko moduan. Horrenbestez, musikako edukiak ikasle bakoitzaren ezagupen mailatik abiatuta antolatuko dira, eta beharrezko ekintza metodologikoen bidez ikasleen beharretara egokituko dira, ikasleen interes eta konpetentzien arabera, betiere, taldeen barneko elkarkidetzarako joera indartuz.

LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

Hirugarren ziklorako helburu orokorrak

1. Adierazpen estetiko-artistikoek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak eta hauen arteko loturak ulertzea. Arte eta produktu horiek gertuko eta beste testuinguruetako hainbat kulturatako pertsona eta artisten esperientziakin lotzea, arteaz eta kulturaz gozatuz.
2. Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen ezagutza eta jakintza izatea. Teknologia eskaintzen dituzten aukerak erabiliz arte-ekoizpenetan norbere ideiak, behaketak, bizipenak, musika esperientziak, e.a. erakutsiz.
3. Musika ekoizpenen teknika, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, eta ekoizpen horietako hizkuntzen elementuak ezagutzea, arte- hizkuntzaren eremuak zabalduz.
4. Arte adierazpenetarako material ezberdinak, naturako elementuak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... irudimenez bilatzea, probatzea, manipulatzeko, eraldatzea eta erabiltzea norbere eta besteren ideiak eta sentimenduak irudikatzeko.
5. Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinararen gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzailez konpontzea. Prozesu honi buruz gogoeta egin eta besteen aurrean iritziak ematea.
6. Musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketen eta izan duten zeregina ulertuz ikuspegi kritiko batekin balioestea.
7. Musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaien hainbat baldintza ulertzea (bostere-harremanak, ideologiak, generoak...). Adierazpen hauen arte-balioa ulertu eta baldintzak aztertuz ikuspegi kritikoa garatzea.
8. Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak sendotzeko.
9. Bakoitzak bere ekarpenak eginez talde lanaz gozatzea, norbere auto-estimua sendotzeko eta lankidetzaren indarra balioesteko.
10. Hainbat jatorri eta kulturatako musika adierazpenak ezagutzea eta balioestea. Garai historiko desberdinen arte-adierazpenak ezagutzea eta hauen arteko erlazioak ulertzea eta balioestea.

Hirugarren ziklorako edukiak

175/2007 Dekretutik hartuta:

1. eduki multzoa. Musika entzumenaren bidez hautematea eta ulertzea

- Hainbat testuingurutan erabili izan diren hainbat estilo eta kulturatako iraganeko eta oraingo musikak aktiboki entzutea eta azaltzea.

- Musika-hizkuntzako tresnak erabiltzea, lan txikiak aztertzeko.
- Musikaren elementuak ezagutzea, eta tinbreak bereiztea soinu hauetan: musika-tresna akustiko eta elektronikoetan, ahotsaren erregistroetan, ahozko talde eta tresna-talde arruntentako hainbat estilotako, konpositoretako eta garaitako musika-piezak entzutean.
- Zati berdinak errepikatuta dituzten musika-formak, zati desberdinak tartekatuta dituztenak eta bariazioak dituzten abestiak identifikatzea.
- Hainbat iturritan, musika-tresnei, konpositoreei, interpretatzaileei, musika-emanaldiei eta musikaren funtzioei eta erabilerei buruzko informazioa bilatzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea, haien azalpenak ematea eta balioestea.
- Hainbat estilo, konpositore, garai eta kulturatako musika-lanak balioestea eta entzuten gozatzea.
- Soinu bidezko erasoen kontrako jarrera kritikoa, eta eraso horiek murrizteko eta norberaren ongizatea eta besteena zaintzeko ekarpen aktiboa.

2. eduki multzoa. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta -sorkuntza

- Musika-interpretazioan erabiltzen diren hainbat musika-tresna eta gailu elektronikoren soinu- eta adierazpen-aukerak aztertzeko.
- Ahozko eta tresna eta gorputz bidezko inprobisazioa, musika-estimuluei eta musikaz kanpoko estimuluei erantzuteko.
- Hainbat mota eta estilotako abestien bilduma zabala lortzea.
- Hainbat estilotako musika-piezen dantzak eta koreografiak interpretatzea eta asmatzea, taldean.
- Sarrerak, interludioak, kodak eta akonpainamenduak sortzea, abestietarako eta pieza instrumentaletarako.
- Gero eta abesti eta pieza instrumental zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak erabiliz, eta, horrez gainera, adierazpen-zeinuak eta agogika kontuan hartzea.
- Musika-hizkuntza musika-konposizioen ideiak eta ezagutza transmititzeko bitarteko gisa balioestea.
- Hainbat grafia (konbentzionalak eta ez-konbentzionalak) erabiltzea, asmatutako musika erregistratzeko eta gordetzeko.
- Ikus-entzunezko bitartekoak eta informatika-baliabideak erabiltzea, musika-piezak sortzeko, irudiei eta antzerki-irudikapenei soinua jartzeko eta gelan interpretatutako musika grabatzeko.
- Hainbat garai eta kulturatako ahozko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea, hainbat taldetarako, akonpainamendurekin eta akonpainamendurik gabe. Taldean interpretatzeak sortzen dituen ardurak bere gain hartzea, eta gainerakoen ekarpenak errespetatzea, bai eta zuzendaria bera ere.
- Abesti errazak bi ahotsetan interpretatzea, kanonen, polirritmien... bitartez.
- Musika-ekoizpenak egiteko iraunkortasuna izatea, eta aurrera egiteko eta hobetzeko gogoia edukitzea.

Hirugarren ziklorako ebaluazioa

175/2007 Dekretutik hartuta:

1. Adierazpen estetiko-artistikorako bitartekoen arteko loturak finkatzea: musika, ikusizko arteak, dantza, literatura, poesia... Antzekotasunak kontuan hartzea.
 - 1.1. Ea erabiltzen dituen musika edo ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.
 - 1.2. Ea enpatiarik ageri duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdiarekin.
 - 1.3. Ea behar bezala aukeratzen duen musika-materiala edo ikusizko materiala, une bakoitzeko beharrak oinarri hartuta.
 - 1.4. Ea artelanean intereseke kultura-baliorik hautematen duen.
2. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak egiteko, norberaren premietara egokitutako teknikak, baliabideak eta arauak erabiltzen ditu, eta haiek aukeratzeko arrazoiak ematen ditu.
 - 2.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak.
 - 2.2. Ea egoki antolatzen dituen arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak, komunikazioan erabiltzeko eta musika-hizkuntza eta ikusizko hizkuntza deszifratzeko.
 - 2.3. Ea halako autonomia batez baliatzen den arte-hizkuntzaren bitartez komunikatzeko.
 - 2.4. Ea teknika egokia erabiltzen duen arte-eremuan komunikatzeko.
3. Baliabide teknikoekin eta musikako eta ikusizko arteetako hizkuntza-baliabideekin lotutako gaitan eman izan diren konponbideak aztertzea, eta erreferente estetiko berri gisa sartzea.
 - 3.1. Ea gelan aztertzen ari diren artelana aztertzen duen bere konpetentzien arabera.
 - 3.2. Ea behar bezala erabiltzen dituen aurretik dituen ezagutzak artelan bat ikustean.
 - 3.3. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak.
 - 3.4. Ea bere iritzia ahoz koherentziaz argudiatuz eta eman beharreko mezuaren adierazpen-mailarekin uztartzen saiatuz adierazten duen.
4. Ideiak, irudikapenak, lanak... eraldatzeko, irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzea.
 - 4.1. Ea prozesatzen dituen irakasgaiari buruz dituen ezagutzak, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.
 - 4.2. Ea buruz prestatzen duen interpretatu edo berregin behar duen lana.
 - 4.3. Ea behar bezala antolatzen dituen arte-ekoizpenerako egin beharreko urratsak.
 - 4.4. Ea ematen duen musika-lana edo ikusizko lana zehazteko eta lanari azken ukitua emateko balio duen ideiarik.
5. Bakoitzaren lan-prozesuaren plangintza egitea, arrazoituz, komunikazio-premien arabera.
 - 5.1. Ea baliabiderik duen arte-ekoizpenean egin beharreko egokitzapenak egiteko.
 - 5.2. Ea egiten duen artelanean egin beharreko esku-hartzeen plangintzarik.

- 5.3. Ea erabiltzen dituen irakasgaia ikasten jarraitzeko bete beharreko ebaluazio-jarraibideak.
- 5.4. Ea jarrera kritiko eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.
6. Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzea.
 - 6.1. Ea hautematen dituen artearen gizarte-funtzioak.
 - 6.2. Ea ezagutzen duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen helburua.
 - 6.3. Ea erabiltzen dituen bere arte-esperientziaren ondorioak ingurunera egokitutako musika-produktu edo ikusizko produktu berriak egiteko.
 - 6.4. Ea interesik ageri duen bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzeko.
7. Gizarte-alderdiek (botere-harremanek, generoak, ideologiak...) artelanak sortzeko duten garrantzia ulertzea, eta ikuspegi kritikoa garatzea.
 - 7.1. Ea bereizten duen artelanaren balioa, testuinguruaren barruan aurkeztuta.
 - 7.2. Ea hautematen dituen musika-gertaeraren edo ikusizko gertaeraren oinarrizko alderdiak.
 - 7.3. Ea identifikatzen dituen estilo jakin bateko lanen ezaugarri komunak.
 - 7.4. Ea argudiatzen dituen hainbat lanen artean dauden loturak.
8. Taldeko jardueretan parte hartzea, eta lankidetzajarrerak erakustea, jarduera horiek ondo ateratzeko.
 - 8.1. Ea taldearekin lan egiten duen, arte-ekoizpena ahalik eta gehien egokitu dadin bere kompetentzietara eta adierazpen estetikoaren premietara.
 - 8.2. Ea harmonikoki parte hartzen duen taldean, eta bere ekarpen materialaren bidez arte-produktu on bat sor dadin saiatzen den.
 - 8.3. Ea entzuten dituen jarduera egiten ari diren taldeko gainerako kideen ekarpenak.
 - 8.4. Ea laguntzen dien arte-jarduerako gainerako kideei, elkartasunez jokotuta.
9. Taldean egiten diren arte-jardueretan norberaren ekarpenak duen garrantzia balioestea, bai eta pertsonen arteko kohesioan lankidetzak duena ere.
 - 9.1. Ea bere artelana aztertzen duen, eta hobetzen saiatzen den.
 - 9.2. Ea jartzen dituen bitartekoak bere arte-jardueraren bidez bere burua garatzeko.
 - 9.3. Ea arte-adierazpena bere burua ezagutzeko bide gisa erabiltzen duen.
 - 9.4. Ea atsegin duen kalitatezko lanak egitea.
10. Hainbat jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen arteko erlazioa elementu aberasgarria eta prozesu historiko errepikaria dela ulertzea.
 - 10.1. Ea hautematen dituen inguruko arte-adierazpenak.
 - 10.2. Ea ezagutza-iturri gisa hartzen dituen bere kultura-ondarearen arte-adierazpenak.
 - 10.3. Ea aitortzen duen kulturen arteko ekarpenen interesa.
 - 10.4. Ea interesatzen zaizkion inguru hurbileko arte berrikuntzak.

BOSGARREN MAILA

BOSGARREN MAILARAKO HELBURU DIDAKTIKOAK

- Euskal Herriko eta Europako kultura-ondarearen musika-adierazpenak eta beste arte-ondare batzuk ezagutzea, bakoitza bere testuinguruan aintzat hartzea eta horiez gozatzea, iritzi kritikoarekin.
- Kantatuz, dantzatuz, musika aktiboki entzunez eta musika eginez gertuko testuinguruko eta beste kultura batzuetako musika-adierazpenak aztertzea eta azaltzea.
- Norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak konfiantzaz agertzea arte-ekoizpenen bidez.
- Musika-hizkuntzaren kode eta parametroak ezagutzea: musikaren funtzioak, musikaren forma, tinbrea, agogika eta dinamika...
- Dantza, entzumen aktibo eta interpretazio-jardueren bitartez musika-ekoizpenen egitura eta ezaugarriak ulertzea, aztertzea eta azaltzea.
- Ikus-entzunezko bitartekoak eta informatika-baliabideak erabiliz musika- eta dantza-ekoizpenak sortzea.
- Gertuko testuinguruan eta haurrak irudikatu dezaken testuinguruetan gertatzen diren soinu-egoerak aztertu, sailkatu eta adieraztea.
- Soinuak guregan duen eraginaren garrantziaz jabetuta, gure ingurua hobetzeko proposamenak egitea.
- Musika-adierazpenerako askotariko instrumentuak ezagutu eta erabiltzea: musika-tresna akustiko eta elektronikoak, ahotsa, ahots-taldeak eta tresna-taldeak, gorputza, inguruko gauzakiak... Baliabide horiek erabiliz arte-ekoizpenetan parte hartzea, banaka edo taldean.
- Arte-adierazpenetarako behar diren baliabide eta tresnak aldeztu aurretik aurreikusi, antolatu eta modu zuzenean erabiltzea.
- Musika- edo dantza-ekoizpen bat sortzeko behar den lana egitea, bai taldean eta bai banaka. Prozesuaren fase guztietan parte hartzea, bai ideiak sortuz, bai hobetzeko proposamenak eginez, eta baita lana jendaurrean aurkezteko trebatze-ariketak eginez ere.
- Lan egiteko erritmo egokiari eustea, arretaz, eta besteei lagunduz.
- Musika-ekoizpen jakin batzuk sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak aztertu eta aintzat hartzea, eta, aldi berean, informazio hori gure kultura-ondareko hainbat ezaugarriekin alderatzea.

BOSGARREN MAILARAKO EDUKIEN TAULA

Unitateak	NON GAUDE?	ENTZUN INGURUA	MUSIKA-HIZKUNTZA IRAKURRI eta ENTZUN		ZEU ARTISTA	DANTZATU
			Erritmoa	Melodia		
1 Üsküdar (TURKIA)	<i>Hagia Sofia</i> (Turkia)	Zurna	Beltzaren baliokideak	Eskala, bitarteak eta aldakariak	Mosaikoa	W. A. Mozart
2 Sakura (JAPONIA)	<i>Tradizioa, modernitate</i> (Japonia)	Taiko		Tonuerdi kromatikoa Tonuerdi diatonikoa Enarmonia	Rakugoa	G. Puccini
3 Indiar merkataria (INDIA)	<i>Taj Mahal</i> (India)	Sitarra		Eskala maiorra	Mila gau eta bat gehiago	N. Rimsky- Korsakov
4 Garota de Ipanema (BRASIL)	<i>Hego Amerikan</i> (Brasil)	Berimbau		Bukaera motak: Azentudun pultsuan Pultsu ahulean	Tarsila do Amaral	D. Milhaud
5 Mede brebre masi ta (TANZANIA)	<i>Afrikan</i> (Tanzania)	Txilibitua		Eskala minor harmonikoa	Maskarak	J. S. Bach
6 Opak (ERRUSIA)	<i>Plaza Gorria</i> (Errusia)	Balalaika			Matrioxkak	M. Mussorgsky

HIRUGARREN ZIKLORAKO METODOLOGIA:

HIRUGARREN ZIKLORAKO JARDUEREN

ANTOLAKETA OROKORRA

1.1. atala

Munduko hainbat lurraldetako arte-ondarearen aberastasuna ikasgelara eraman nahi izan da jarduera honekin. Horretarako, lurralde horietako arte-kulturako elementu esanguratsuenaz baliatzeaz gainera, euskal herri-musikaren ondareko abestiak eta doinuak erabili dira, hitzak egokituta aukeratutako lurralde eta gaiaren beharretara.

Abestia nola ikasi erakutsiko du irakasleak. Abestia ikasteaz gainera, dantza, antzerkia, gorputz-perkusioa, musika-tresnen erabilera, gorputzaren bidezko adierazpena eta ahotsaren erabilera bultzatzen du jarduera honek.

Ziklo honetako letradun abestiak ahotsik gabe grabatu dira, eta ordeaz, beste instrumentu batzuek egin dituzte melodiak. Ikasleek melodía gainean jarriko dute ahotsa, karaoke baten moduan. Erabaki hau hartzeko arrazoiak asko izan dira: autoestimua eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea; ikasle bakoitzak bere ezaugarriak eta aukerak ezagutzea eta jarduera orekaz eta autonomiaz egitea, helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasuna gainditzeko joateari balioa emanaz; izaera ekintzailea garatzea, norberarenganako konfiantza-jarreraren, sen kritikoaren eta ekimen pertsonalaren bidez; Euskal Herriko eta beste herrialdetako kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, ikuspegi kritikoak aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko; memoria lantzeko; ahotsa egoki proiektatzen ikasteko, besteak beste.

1.2. atala

Munduko beste kontinenteetako hainbat tokitan ikusiko ditugu iaio eta Kliku atal honetan. Erailkin edo toki famatuak bisitatuko dituzte; hainbat hizkuntzatan hitz egingo dute; arteaz, arkitekturaz... hau da, ondare kulturalaz gozatuko dute, eta ikasleek, iritzi kritikoaz baliatuta, iritziak emango dituzte.

Ahozko adierazpena bultzatu nahi du jarduera honek. Musikarekin lotuta dauden hainbat gairi buruzko kontzeptuak eta terminologia ikasteko aukera emana. Ahozko adierazpena erabiltzeaz gainera, ohiko jarduera bihurtzea da atal honen helburua.

Atal honetako jolasek haurraren irudimena bultzatzea eta konfiantzan oinarritutako banakako partaidetza eta talde-dinamika indartzea dute helburu.

1.3. atala

Lurralde bakoitzeko musika eta musika-tresna herrikoiei eskainitako atala da hau. Herri-musikari buruzko hausnarketa egiteaz gainera, ikasleek teknologia berriak erabiliz herri-musika eta -dantzei buruzko ikerketa-lanak egingo dituzte, eta unitate bakoitzean ikus-entzunezko proiektu bat egiteko aukera izango dute toki bakoitzeko ohitura, dantza, doinu, musika-tresna eta abarren gainean.

2. atala

Hona, hemen, atal honen helburu nagusia: soinu-iturriak, zaratak, musikak eta isiltasunak hainbat testuinguruetan duten presentziaz jabetzea. Soinuak bereizi, deskribatu, alderatu, definitu eta sailkatu egingo dira jardueretan, gogoetaren eta partaidetzaren bidez.

Haurrak, entzuten duena aztertzeaz gainera, entzuten duenak iradokitzen dizkion egoerei buruz gogoeta ere egingo du, eta irudizko egoera hori denen aurrean azalduko du.

Ikasleak, bere sentipenak eta deskribatzeko erak denen aurrean azaltzeaz gainera, besteen iritziak eta gogoetak entzun eta kontuan hartuko ditu; era horretara, haurraren autonomia eta autestimua indartuko dira

3.1. atala

Musika-hizkuntza islatzen duten elementu abstraktuak eta matematikaren pentsamendu-tresnak eta baliabideak erabiltzea oinarrizkoak dira musika-irakaskuntzan: besteak beste, soinuaren iraupena eta idazkera, hainbat kontzeptu erritmikoren arteko proportzionaltasuna, forma geometrikoen trazatuak, gauzen diseinuak, neurri eta kokalekuen erabilera...

Atal honetan modu, isolatuan lantzen dira erritmoarekin lotutako kontzeptu horiek: irakurketan, entzumen aktiboan eta sormenean oinarritutako jardueretan.

Musika-elementuen irakaskuntzak eragin handia du haurraren ikasteko eta lan egiteko ohituretan, eta, atal honetako jardueren bitartez, arteak eta, bereziki, musikak gure bizitzan duen eraginaz jabetzeko aukera izango du.

3.2. atala

Aurreko atalean bezala, musika-hizkuntzaren bitartez islatzen duten elementu abstraktuak, matematikaren pentsamendu-tresnak eta baliabideak erabiltzea oinarrizkoak dira musika-irakaskuntzan: besteak beste soinuaren altuera eta idazkera, hainbat kontzeptu melodikoen arteko proportzionaltasuna, forma geometrikoen trazatuak, gauzen diseinuak, neurri eta kokapenen erabilera, tarteen eta distantziaren erabilera...

Atal honetan modu isolatuan lantzen dira melodiarekin lotutako kontzeptu horiek: irakurketan, entzumen aktiboan eta sormenean oinarritutako jardueretan.

Musika-elementuen irakaskuntzak eragin handia du haurraren ikasteko eta lan egiteko ohituretan, eta atal honetako jardueren bitartez, arteak eta bereziki musikak gure bizitzan duen eraginaz jabetzeko aukera izango du.

3.3. atala

Musika-hizkuntzako ataletan jasotako ezagutzetan trebatzeko eta horiek finkatu eta barneratzeko ariketak izango ditu ikasleak atal honetan. Ariketa osagarri hauek bakarka egiteko eskaintzen dira.

4. atala

Haurraren jakin-min eta interesen esparrua indartu eta zabaltzeko beharra ikusten dugu, eta beste era batzuetako arte-adierazpenak aurkeztuko dira horretarako. Beren errealitatetik

gertuko informazio-atal txikiekin motibatu eta ikasteko modu berriak indartu nahi dira jarduera honen bitartez.

Atal honetako jardueren bitartez, haurra jabetuko da eguneroko gauzak arte-adierazpen askotan agertzen direla eta, hainbat kasutan, arte-adierazpenak gauzatzeko erabiltzen direla. Haurraren interes-esparruko elementuak oinarri harturik, gizakiaren bilakaeraz gogoeta egiteko eta norberaren iritzia indartzeko eta besteen aurrean adierazteko gonbita egingo die.

5. atala

Komunikazioak, berdintasunak, bizikidetzak, globalizazioak, kontsumoak... gure bizitzan duen lekuaz eta garrantziaz jabetzeko atala da hau: hainbat egoeratan arlo horiek eta beren osagaiak aztertu eta ulertzeko helburua du, eta, horretarako, gudan duten eragina aztertu eta haiei buruz ditugun jarrerei buruz gogoeta egingo dugu. Erabilera egokiak ezagutuz, aukerak aztertuz eta hainbat jarrera zaintzearen garrantziaz hausnarketa eginez norbanakoaren eta inguruko kalitatea hobetzea bilatzen du jarduera honek.

6.1. atala

Munduko musika historikoaren ondarean murgiltzea da atal honen helburua. Musika historikoaren protagonista nagusien bizitza ezagutzea, garai artistiko nagusiak ezagutzea, eta, aldi berean, haurraren autonomia bultzatzea, teknologia digitala erabiltzeko eskatuz, sorkuntza-proiektu batean parte hartzeko.

6.2. atala

Atal honetan aurkeztutako egileen obra nagusiak lantzen dira, modu ludikoan, jolas, irudi, dantza, antzerki eta abarren bitartez. Dantza eta gorputz-adierazpena erabiltzen dira, nagusiki, musika-ezagutza barneratzeko; haurrak doinuaren altuerak, erritmoak, musika-formak, tinbreak... bereganatuko ditu, gorputz-mugimenduaren eta gorputz-adierazpenaren bitartez.

6.3. atala

Aurreko atalean bezala, atal honetan aurkeztutako egileen doinuak lantzen dira interpretaziozko jardueren bitartez. Kantua eta musika-tresnak erabiltzen dira, nagusiki, musika-ezagutza barneratzeko; haurrak doinuaren altuerak, erritmoak, musika-formak, tinbreak... bereganatuko ditu, abestia eta instrumentuak direla medio.

7. atala

Aurreko atalean agertu diren musika-tresnei eskaintzen zaie tarte hau, eta ikasleari aukera emango die musika klasikoan, herri-musikan edo pop/rockean erabiltzen diren musika-tresna erabilienak ezagutzeko. Haurrak, musika-tresnak ezagutzeaz gainera, aztertu, alderatu, izenak ikasi eta musika-tresnen familietan sailkatuko ditu, baita haien izenak ikasi ere. Bestalde, musika interpretatzeko lekuak aztertuko dira.

8. atala

Atal honetan, txirula joz eta perkusiozko laguntzak asmatuz eta interpretatuz egingo dira interpretazio-jarduerak. Haurrak musika-tresna jotzeko trebezia intelektual eta motorrak landuko ditu, eta interpretazio-jarduera kolektiboetan parte hartuko du, musikaltasuna eta sormena lantzeko.

1 . UNITATEA

Üsküdar

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia:** 1.1, 3.1, 3.2, 3.3, 6.1, 6.2, 6.3 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia:** 1.1, 6.1 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Elkarbizitzarako konpetentzia:** 1.1, 2, 3.1, 3.2, 3.3, 5, 6.1, 6.2 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Izaten ikasteko konpetentzia:** 2, 3.1, 3.2, 3.3, 4, 6.1, 6.2, 6.3 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia:** 1.2, 1.3, 2, 4, 5, 6.3 eta 7 jardueretan lantzen da.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia:** 2, 3.1, 3.2, 3.3, 5, 6.1 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia:** 1.2, 1.3, 2, 5, 6.1, 6.2, 6.3 eta 7 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Matematikarako konpetentzia:** 3.1, 3.2, 3.3, 6.1, 6.2 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Teknologiarako konpetentzia:** 1.2, 1.3, 2 eta 6.1 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Arterako konpetentzia:** 1.1, 1.2, 1.3, 3.1, 3.2, 3.3, 4, 6.1, 6.2, 6.3, 7 eta 8 jardueretan lantzen da.
- ✧ **Konpetentzia motorra:** 1.1, 3.1, 3.2 eta 8 jardueretan lantzen da.

EDUKIAK

1. eduki multzoa: Musika entzumenaren bidez hautematea eta ulertzea.

- ✓ Inguruko soinuak aztertu eta deskribatzea.
 - Istanbulgo bazarreko soinuak.
- ✓ Musika-hizkuntzako tresnak, gorputz-perkusioa, dantza zein ahotsa erabiltzea, lanak aztertzeke eta musika-hizkuntzan trebatzeko.
 - Erritmoa irudikatzeko erabiltzen diren irudien errepasoa; beltzaren baliokideak. Bi-lauko, hiru-lauko eta lau-lauko konpasak.
 - Melodiako elementuen errepasoa: eskala, bitarteak, aldakariak, armadura, si₃-sol₅ notak eta lerro gehigarriak.
 - Mugimendua. Izaera. Intentsitatea.

- Musikaren forma: galdera-erantzuna; esaldien identifikazioa eta antolaketa, musikaren egituran; esaldien hasiera motak. Rondoak.
- ✓ Musika osatzen duten kontzeptuen funtzioak ezagutu, ulertu eta identifikatzea; melodia, erritmoa, forma, tinbrea, agogika, dinamika, adierazpen-zeinuak...
- ✓ Tinbreak bereiztea soinu hauetan: musika-tresna akustiko eta elektronikoetan, ahotsaren erregistroetan, ahozko talde eta, bereziki, jazz-taldeetan, eta hainbat estilotako, garaitako eta konpositorek idatzitako musika-piezak entzutean.
- ✓ Barne-entzumena eta entzutezko barne-oroimena sendotzea.
- ✓ Hainbat testuingurutan erabili izan diren estilo eta kulturetako musika-konposizioen entzumen aktiboa egitea, eta horien zenbait ezaugarri bereiztea eta azaltzea:
 - Mozart, W. A.: *Turkiar martxa*, David Brubeck: *Blue Rondó a la turk*.
 - Mozart, W.A.: *Pianorako sonatak, KV 331 eta 545*
 - *Hagia Sofia* (Azkueren kantutegitik, *Adios izar eder*)
- ✓ Hainbat iturritan musika-tresnei, konpositoreei, interpretatzaileei, musika-emanaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa bilatzea eta azaltzea:
 - Mozart (martxa), David Brubeck (rondoa)
- ✓ Entzundako musikak edo musika-emanaldiak entzunez gozatzea eta horiei buruzko azalpenak eta iritziak ematea:
 - Jazza. Klasizismo garaiko musika.
- ✓ Bizikidetzarako eta, bereziki, soinu bidezko erasoen kontrako jarrera kritikoa izatea, eta eraso horiek murrizteko eta norberaren ongizatea eta besteena zaintzeko ekarpen aktiboa egitea.
- ✓ Proposatutako gaiei buruz nor bere irizpidea osatzea, gogoetarako joeran eta iritzi kritikoan oinarrituta.
- ✓ Arte-adierazpenen historiaren gaineko hausnarketa:
 - Mosaikoak.
- ✓ Arte-adierazpenen historiaren gaineko iritzi kritikoa lantzen hastea: berdintasuna.

2. eduki multzoa: Musika adieraztea, interpretatzea eta sortzea.

- ✓ Abesti eta pieza instrumentalak idaztea, irakurtzea eta interpretatzea; melodia, erritmoa, tinbrea, agogika, dinamika, adierazpen-zeinuak...
 - Erritmoa irudikatzeko erabiltzen diren irudien errepasoa; beltzaren baliokideak. Bi-lauko, hiru-lauko eta lau-lauko konpasak.
 - Melodiaren elementuen errepasoa: eskala, bitarteak, aldakariak, armadura, si₃-sol₅ notak eta lerro gehigarriak.

- Mugimendua. Izaera. Intentsitatea.
- Musikaren forma: galdera-erantzuna; esaldien identifikazioa eta antolaketa, musikaren egituran; esaldien hasiera motak. Rondoak.
- ✓ Ahozko interpretazio, tresna bidezko interpretazio, dantza eta mugimendu-segida ezagunak zein asmatuak banaka nahiz taldean koordinatzea eta sinkronizatzea.
- ✓ Musika interpretatzeko erabiltzen diren hainbat musika-tresna eta gailu elektronikoren soinu- eta adierazpen-aukerak aztertzea:
 - Turkiako herri-musika, Euskal Herriko musika tradizionala, jazzak, Klasizismo garaiko musika.
- ✓ Ahozko inprobisazioa eta tresna eta gorputz bidezko inprobisazioa erabiltzea, musika-estimuluei eta musikaz kanpoko estimuluei erantzuteko.
- ✓ Sarrerrak, interludioak, kodak eta laguntzak sortzea, abestietarako eta pieza instrumentaletarako.
- ✓ Abestiak, kanonak, polirritmiak eta pieza instrumentalak aho batez interpretatzea eta buruz ikastea:
 - *Üsküdar, Hagia Sofia (Adios izar eder)*, Mozarten *Pianorako sonatak, KV 331 eta 545*, *Marokoko haur kanta*.
- ✓ Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen bilduma zabala osatzea:
 - *Üsküdar, Hagia Sofia (Adios izar eder)*, *Turkiar martxa*, *Blue rondó a la turk*, *Marokoko haur kanta*.
- ✓ Musika-hizkuntza konposizioen ideiak eta ezagutza transmititzeko bitarteko gisa balioestea.
- ✓ Musika-grafia eta grafia ez-konbentzionalak erabiltzea musika erregistratzeko eta ulertzeko.
- ✓ Ikus-entzunezko bitartekoak eta informatika-baliabideak erabiltzea, musika-piezak sortzeko, irudiei eta antzerki-irudikapenei soinua jartzeko eta gelan interpretatutako musika grabatzeko.
- ✓ Hainbat garai eta kulturatako ahozko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea, hainbat taldetarako laguntzarekin nahiz laguntzarik gabe.
- ✓ Musika egiteko norberaren aukeretan konfiantza izatea eta interpretazio-jardueretan parte hartzea, gainerakoen ekarpenak errespetatuz, bai eta zuzendaria bera ere.
- ✓ Musika-ekoizpenak egiteko iraunkortasuna izatea, eta aurrera egiten eta hobetzen saiatzea.

JARDUERAK



1.1. Hagia Sofia abestia. (©1) Adios izar eder (Azkue I).



OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Arterako konpetentzia.
- ✧ Konpetentzia motorra.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- ☐ Entzun eta ikasi *Hagia Sofia* abestia.
- ☐ Asmatu *Hagia Sofia* doinuarekin taldean egiteko koreografia bat; erregistratu asmatutako mugimenduak grafia konbentzional edo ez-konbentzionala erabiliz (paper lerrodunean edo arbelean), eta dantzatu.



Zuzenean koreografia asmatzen hasi aurretik, interesgarria da abestiaren forma aztertzea, dantzaren pausoak abestiaren esaldiekin bat etorri ohi baitira. Koreografia asmatzeko, lagungarriak izango dira abestiaren hitzen esaldiak eta errepikatzen diren zatiak.

Koreografia bukatutakoan, bi taldetan banatuko dira ikasleak: batek dantzaren doinua abestuko du, eta besteak dantza egingo du.

Hurrengo errepikapenean, lehen txandan dantza egin dutenek abestu egingo dute, eta alderantziz.

Taldean landu beharreko proiektuetan sortzen diren ardurak irakasleak gainbegiratu dituzte, eta ardura-banaketa orekatu du, hala behar izanez gero. Bestalde, guztien ekarpenekiko errespetua sustatu du, baita kalitatezko emaitza lortzeko saiamena eta interesa ere (originaltasuna, koordinazioa, sinkronizazioa, mugimendu eta soinu gozatuen bilaketa...), eta aurrerak egiteko eta hobetzeko gogoia.

1.2. Iaio eta Kliku Istanbulen.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.

✧ Teknologiarako konpetentzia.

✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

□ Non daude Iaio eta Kliku? Begiratu mundu-bolan bihotz gorria non dagoen, eta hala asma-tuko duzu. Orrialdeko leku-irudiek eta izenak (*Hagia Sofia*) eta unitatearen izenburuak (*Üs-küdar*) ere lagunduko dizute. Istanbulen daude, Turkian.

□ Proposatu gogoeta:

Non dago Istanbul? Non kokatuko zenuke, Asiako mapa batean? Zer dakizue Turkiako geografiari buruz? Bi kontinenteren artean dago; zer kontinenteren artean? Itsasarte batek banatzen du herrialdea; nola du izena itsasarte horrek? Eta itsasarte horrek bi itsaso bereizten ditu; zer itsaso dira?

Zer dakizue Turkiako historiari buruz? Beste zer izenez ezaguna da Istanbulgo hiria?

Zer dakizue Turkiako musikari eta dantzei buruz?

□ Margotu Hagia Sofia, eta errepasatu eraikinaren izena.¹

Interesgarria da lurralde horretako musikaren eta/edo dantzaren adibideak bilatzea sarean edo beste iturri batzuetan, eta horien funtzioei eta erabilerei buruzko informazioa trukatzea. Ondoren, hitz egin entzundako musikari buruz (musika-tresnak, tempoa...), dantzariei buruz (nola mugitzen diren, parte-hartzaileak, janzkera...).

Euskaraz zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz adieraztea bultzatuko da azken jardueraren proposamenaren bidez. Baita hitz eginez komunikatzea, norberaren pentsamenduak antolatzea eta hitz egiteko behar diren prozesuei buruzko gogoeta egitea ere. Informazioaren teknologiak erabiltzen ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan jasotako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanik, betiere.

1.3. Herri-ondarea.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.

✧ Teknologiarako konpetentzia.

✧ Arterako konpetentzia.

¹ *Ikasleen liburua*, 6. or.: Koloreztatu Istanbulen Hagia Sofia, abestu Hagia Sofia kanta, eta itsatsi Turkiako herri-ondareko musika-tresna.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- ☐ Herri-ondareko musika-tresna.

Itsatsi Turkiako lurraldeari dagokion herri-ondareko musika-tresna.²

Bilatu Turkiako herri-ondareko musikaren informazioa sarean edo beste iturri batzuetan; saiatu zurna musika-tresnaren audioak bilatzen, eta, nahi izanez gero, herri-ondareko beste musika-tresna batzuenak.

- ☐ Irakasleak emango dio hasiera hausnarketari; ikasleek galdera hauei erantzunez eta beste galdera batzuk asmatuz parte har dezakete:

- Zer familiatan sailkatuko zenuke zurna musika-tresna? Zerez dago egina? Nola jotzen da?
- Ba al dago Euskal Herriko musika-tresnen ondarean antzeko musika-tresnarik?
- Eduki al du musika-tresna honek bilakaerarik?
- Zer funtzio izan du musika-tresna honek jatorrizko lurraldeko tradizioan?

- ☐ Interesgarria izan daiteke lurralde honetako herri-ondareari buruzko lan-proiektu bat osatzea taldean, ikus-entzunezko bitartekoak eta informatika-baliabideak erabiliz. Lana biribiltzeko era ezin aproposagoa izango da lana ikaskideen aurrean aurkeztea.

² *Ikasleen liburua*, 6. or.: *Koloreztatu Istanbulko Hagia Sofia, abestu Hagia Sofia kanta eta itsatsi Turkiako herri-ondareko musika-tresna.*



2. Istanbulgo Bazar Handiko soinuenak.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.
- ✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.


DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- ✧ Teknologiarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Aztertu Istanbulgo Bazar Handiko giroa irudikatzen duen eszena, eta pentsatu zer-nolako soinuenak entzungo diren bazar horretan.
Irakurri kontakizuna, aukeratu kontakizuneko hutsune bakoitzerako hitz egokia orrian agertzen den hitz-zerrendatik, eta txertatu testuan.³
Erantzuna: zaratatsuan, zirraragarriagoa, apalagoak, hipnotizatuile, ahul, ikaragarri.
- Azkenik, talde txikitik nahiz ikastalde osoak elkarrekin, antzeztu kontakizuna. Ikasle bakoitzak rol jakin bat jokatu du. Jarduera asko aberastuko luke jantziak, audioak, dekorazioa eta abar erabiltzeak edo sortzeak. Irakaslearen esku egongo da emaitza grabatu eta kideekin, etxekoekin, beste ikastetxe batzuekin... partekatzea.

³ Lan-koadernoan, 4. or.: 1. Eszenako soinu-giroarekin bat datozen hitzak txertatu kontakizunean.



3.1. Musika-hizkuntzaren elementuak: erritmoa.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.
- ✧ Konpetentzia motorra.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

Irakasleak, beharra ikusiz gero, ikasleen premien arabera egokitu dezake erritmo-serieak egiteko zailtasun maila, abiadura, jarraian egin beharreko konpas kopurua, etab. moldatuz, besteak beste. Ikasleak ikasturte-amaierarako liburuko ariketak jarraian eta audio-diskoko abiaduran egiteko gai izatea izango da helburua, betiere.

Erritmoa irakurri eta egin:

- Azalpen teorikoa.
 - Berrikusi laugarren mailan ikasitakoa:
 - Nota-irudiak: beltzaren baliokideak.
 - Bi-lauko, hiru-lauko eta lau-lauko konpasak.

Orrialde honetako erritmo-serieak ahotsarekin, gorputz-perkusioarekin, gauzakiekin edo perkusio txikiko musika-tresnekin interpretatzeko pentsatu dira. Ahotsa erabiltzean, Kodalyren metodologiako erritmo-hitzak erabil daitezke, edo Orffek proposatutako erritmora egokitzen diren hitz asmatuak.

1. Ibili erritmoekin jolasean.

Jolasean hasi aurretik, trebatu erritmo-serieak egiten, bakoitzak nahi duen soinu-iturria aukeratuta.

Irakasleak pulsuari eusten lagundu beharko du, hala behar izanez gero.

Ikasleak talde txikitan banatuta biribilean eser daitezke.

Txandaka, ikasle talde bakoitzak erritmo bat egingo du, eta zer erritmo-serie egin duten asmatu beharko dute gainerakoek.

Asmatu duen taldeak egingo du erritmoa hurrengo txandan.

2. Ikusi kate erritmikoa.

Erritmo-sekuentzia hau lantzeko, irakasleak tarte bat emango die ikasleei, nahi duten soinu-iturria aukeratuta erritmoa ikas dezaten, binaka.

Ondoren, irakasleak serie osoa interpretatuko du, baina konpas bat aldatuta, eta zer aldatu duen asmatu beharko dute ikasleek. Azalpenak ahalik eta zehatzen ematea eskatuko zaie: zer konpas zenbakitan, zer pulsutan, zer iruditan... egin den aldaketa.

Bukatzeko, ikasleek kate erritmikoa egingo dute, bakoitzak konpas bat, txandaka, irakasleak emandako pulsuari jarraituz.

3. Egin erritmoak aldi berean!

Ikasleak bi taldetan banatu, eta talde bakoitzari erritmo bat egokituko zaio.

Adostu zer soinu-iturri erabiliko den ariketa egiteko.

Bi erritmoak aldi berean egin baino lehen, talde bakoitzak bakarka landuko du bere sekuentzia. Irakasleak talde bakoitzak bere sekuentzia ondo egiten duela ziurtatutakoan, bi taldeek aldi berean interpretatuko dute.

Ariketa amaitutakoan, talde bakoitzak lehen saioan egin ez duen erritmo-sekuentzia landuko du, lan-prozesu berari jarraituz.

4. Asmatu bat-batean.

Erritmo-serie hau osatu gabe dago. Aztertu, denen artean, zer aukera dauden seriea osatzeko.

Ikasleak binaka elkartuko dira, eta bien artean adostuko dute nola osatu erritmo-seriea. Gero, denen aurrean egingo dute asmatutako bertsioa. Seriea osatzeko zer nota-irudi erabili duten asmatu beharko dute ikaskideek, eta baita zer soinu-iturri baliatu duten ere.

Erritmoa entzun eta egin:

Entzumen-ariketak egiten hasi aurretik, komeni da erritmo-serieak banan-banan aztertzea eta egitea. Identifikazio-lana errazteaz gainera, erritmoa eta nota-irudi berriak barneratzen lagunduko die.

1. Entzun adi, eta erantzun argi. (⊙2)

Erritmo-serieak arretaz entzun ondoren, galdera hauei erantzun beharko diete:


Zein entzun duzu? (3) Zein ez duzu entzun? (2)

Idatzi, entzundako ordenan. (1) (2) (4) (3)

2. Asmatu kode sekretua, konpasak entzundako ordenan ipiniz, eta, ondoren, idatzi. (⊙3)

Ikasleek arretaz entzun, eta entzundako ordenaren arabera idatziko dituzte eskaintzen zaizkien lau konpasak:

Zein da kode sekretua? (3) (1) (2) (5)



Horrela, entzun ez duten konpasa identifikatuko dute.


Zein ez duzu entzun? (4)

3. Jarri bakoitza bere tokian. (⊙4)

Erritmo-seriea osatu gabe dago. Aztertu, denen artean, irakaslearen galderei erantzunez:

Zer konpas daude osatu gabe? Zer pultsu falta dute konpas horiek? Zer aukera daude pultsua osatzeko? Zer aukera eskaintzen dira?...

Ikasleek arretaz entzun, eta erritmo-seriean falta diren pultsuak osatuko dituzte.



Orrialde honetako erritmo-serieak hainbat soinu-baliabiderekin interpretatuz grabatu dira. Ariketak amaitzean, zer tinbre entzun duten galdetu dakieke.

Eskala

1. Ibai doinuak jotzen.

2. Irakurri, abestu eta lagundu.

3. Bi ahotsak!

4. Asmatu bai-batain.

• Ikasi jarraian duaz abesti txikia.

1. Entzun adi, eta erantzun argi.

2. Asmatu kode sekretua, konpasak entzundako ordenan (piriz, eta, ondoren, idatz).

3. Jarri bakotza bere tokian.

• Zen entzun duzu?

• Zen ez duzu entzun?

• Zein da kode sekretua?

• Zen ez duzu entzun?

3.2. Musika-hizkuntzaren elementuak: melodia.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.
- ✧ Konpetentzia motorra.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

Irakasleak, beharra ikusiz gero, ikasleen premien arabera egokitu dezake melodia-ariketen zailtasun maila, abiadura, jarraian egin beharreko konpas kopurua, etab. moldatuz, besteak beste. Ikasleak ikasturte-amaierarako liburuko ariketak jarraian eta audio-diskoko abiaduran egiteko gai izatea izango da helburua, betiere

Melodia irakurri eta egin:

- Azalpen teorikoa.

Berrikusi laugarren mailan ikasitakoa:

- Eskala, bitarteak eta aldakariak. Armadura. si_3 - sol_5 notak eta lerro gehigarriak. Mugimendua. Izaera. Intentsitatea.

1. Ibili doinuekin jolasean.

Jolasean hasi aurretik, trebatu doinu-serieak egiten, bakoitzak nahi duen soinu-iturria aukeratu.

Irakasleak pulsuari eusten lagundu beharko du, hala behar izanez gero.

Ikasleak talde txikitan banatuta biribilean eser daitezke.

Txandaka, ikasle talde bakoitzak doinu bat egingo du, eta zer doinu-serie egin duten asmatu beharko dute gainerakoek.

Asmatu duen taldeak egingo du doinua hurrengo txandan.

2. Irakurri, abestu eta lagundu.

Melodia-sekuentzia hau lantzeko, irakasleak tarte bat emango die ikasleei, nahi duten soinu-iturria aukeratu eta ikas dezaten, binaka.

Ondoren, irakasleak serie osoa interpretatuko du, baina konpas bat aldatuta, eta zer aldatu duen asmatu beharko dute ikasleek. Azalpenak ahalik eta zehatzen ematea eskatuko zaie: zer konpas zenbakitan, zer pulsutan, zer iruditan... egin den aldaketa.

Bukatzeko, ikasleek kate melodikoa egingo dute, bakoitzak konpas bat, txandaka, irakasleak emandako pulsuari jarraituz.

Asmatu doinu hori laguntzeko ostinato erritmiko bat, eta interpretatu, nahi diren soinu-baliabideak erabiliz.

3. Bi ahotsera!

Ikasleak bi taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari ahots bat egokituko zaio.

Adostu zer soinu-iturri erabiliko den ariketa egiteko.

Bi ahotsak aldi berean egin baino lehen, talde bakoitzak bakarka landuko du bere sekuentzia. Irakasleak talde bakoitzak bere sekuentzia ondo egiten duela ziurtatutakoan, bi taldeek aldi berean interpretatuko dute.

Ariketa amaitutakoan, talde bakoitzak lehen saioan egin ez duen ahots-sekuentzia landuko du, lan-prozesu berari jarraituz.

4. Asmatu bat-batean.

Melodia-serie hau osatu gabe dago. Aztertu, denen artean, zer aukera dauden seriea osatzeko.

Ikasleak binaka elkartuko dira, eta bien artean adostuko dute nola osatu melodia-seriea. Gero, denen aurrean egingo dute asmatutako bertsioa. Seriea osatzeko zer nota eta irudi erabili ditzuten asmatu beharko dute ikaskideek, eta baita zer soinu-iturri baliatu duten ere.

☐ Ikasi eta abestu *Jarraian doaz* abesti txikia. (⊙5)

The image shows two staves of musical notation in treble clef, 2/4 time. The first staff contains the melody for the first line of the song, with lyrics written below it. The second staff contains the melody for the second line, also with lyrics below it. The notation includes various note values, rests, and accidentals (sharps and naturals).

Ja- rrai- an do- az es-ka-lan no- tak nahi du- zu- ne- tik ha- si- ta kan- ta- tu de-

nak le-he- nen- go go- ra ta ge- ro behe-ra dan-tzan zor- tzi- rak

Melodia entzun eta egin:

Entzumen-ariketak egiten hasi aurretik, komeni da melodia-serieak banan-banan aztertzea eta egitea. Identifikazio-lana errazteaz gainera, melodia eta erritmoa barneratzen lagunduko die.

1. Entzun adi, eta erantzun argi. (⊙6)

Ikasleek arretaz entzun, eta galdera hauei erantzun beharko diete.

Zein entzun duzu? (4) Zein ez duzu entzun? (1)

Idatzi, entzundako ordenan. (3) (2) (4) (1)

2. Asmatu kode sekretua. (⊙7)

Ikasleek arretaz entzun, eta eskaintzen zaizkien konpasetatik zein entzun ez duten identifikatu behar dute. Ondoren, entzundako ordenaren arabera idatzi beharko dituzte gainontzeko lau konpasak:

Zein da kode sekretua? (3) (2) (4) (1)



Horrela, entzun ez duten konpasa identifikatuko dute, eta honako galdera honi erantzungo diote:

Zein ez duzu entzun? (1)

3. Jarri bakoitza bere tokian. (⊙8)

Melodia-seriea osatu gabe dago. Aztertu, denen artean, irakaslearen galderei erantzunez:

Zer konpas daude osatu gabe? Zer pultsu falta dute konpas horiek? Zer aukera daude pultsua osatzeko? Zer aukera eskaintzen dira?...

Ikasleek arretaz entzun, eta melodian falta diren pultsuak osatuko dituzte.



Orrialde honetako melodia-serieak hainbat soinu-baliabiderekin interpretatuz grabatu dira. Ariketak amaitzean, zer tinbre entzun duten galdetu dakieke.

2. Osatu irudien eta isiluneen zuhaitz hauek.

3. Asmatu konpasa, eta idatzi zatilerroak.

4. Errepasatu *Üsküdar* abestia, eta abestu, noten izenak esanez.

5. Lotu galdera-esaldi bakoitza dagokion erantzun-esaldiarekin.

6. Zehaztu zenbateko bitartea den, eta zenbatu tonu eta tonuerdi kopurua.

3.3. Musika-hizkuntzaren elementuen errebasoa.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK


- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Erabili musika-hizkuntzako erritmoari eta melodiari buruzko ataletan ikasitako elementuak lan-koadernoan.
- 2. Osatu irudien eta isiluneen zuhaitz hauek.
- 3. Asmatu konpasa, eta idatzi zatilerroak.
- 4. Errepasatu *Üsküdar* abestia, eta abestu, noten izenak esanez.
- 5. Lotu galdera-esaldi bakoitza dagokion erantzun-esaldiarekin.
- 6. Zehaztu zenbateko bitartea den, eta zenbatu tonu eta tonuerdi kopurua.



4. Mosaikoak.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.
- ✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- ☐ Mosaikoa material askotariko (beira, marmola, harria, zura, zeramika) eta koloretako pieza txikiak (teselak) elkarri atxikiz osatzen den arte apaingarria da. Antzinaroan eta, bereziki, erromatarren garaian landutako arte-adierazpen honek Bizantziar Inperioan izan zuen unerik distiratsuena.
- ☐ Osatu irudia, teselak margotuz. Hainbat aukera daude horretarako: ikastalde osoak kolore berberak erabiltzea; talde txikitan antolatuta, talde bakoitzak gama jakin bat erabiltzea, edo ikasle bakoitzak gustuko dituen koloreak erabiltzea.
- ☐ Errepasatu aurreko ikasturteetan landutako arteko edukiak, eta pentsatu non agertu den arte apaingarri honen adibideren bat. Ikus.: *Ikasleen liburua*, 3. maila, 3. unitatea, 28. orrialdea.



5. Berdintasuna.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Aztertu lan-koadernoko eszena⁴. Zortzi konpositoreren argazkiak ageri dira: horietatik batzuk beste ikasturte batzuetan ikasi ditugu; beste batzuk, ez.
- Irakasleak emango dio hasiera hausnarketari; ikasleek galdera hauei erantzunez eta beste galdera batzuk asmatuz parte har dezakete.

Gaur egun, oraindik betetzeke dagoen gizarte-helburua da sexuen arteko diferentziak deuseztatzea eta pertsona guztien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonen nahiz emakumeen diskriminazioa eragin dezaketen estereotipoak baztertzea.


 - Zergatik agertzen dira musikaren historian hain emakume gutxi?
 - Zergatik daude emakumezko konpositore ezagun gutxiago?
 - Gaur egun, nola dago oreka?
 - Beste arte-adierazpen batzuetan zer-nolakoa da egoera?
 - Eta gure gizartean?

⁴ Lan-koadernoa, 8. or.: 7. Zeintzuk dira konpositorerik ezagunenak? Zergatik?

Hausnarketa-prozesuan, ikasleek honako jarrera hauek barneratu ditzaten ahaleginduko da irakaslea:

- ✓ Beste pertsona batzuen egoeran jartzeko ahalmen enpatikoa izatea.
- ✓ Norberarenaz bestelako iritziak sentiberatasunez eta jarrera kritikoz entzuteko, aztertze eta aintzat hartzeko ahalmena izatea.
- ✓ Norberaren ideiak eta emozioak edukiz eta formaz egoki adierazteko ahalmena izatea.
- ✓ Kritika eraikitzaileak onartzeko eta egiteko ahalmena izatea.

Bide hori landuz, entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko konpetentzia hartuta, hitzezko harreman nagusien jabe egingo dira ikasleak, eta gai izango dira askotariko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko mezuak adierazteko eta ulertzeko. Horrela, komunikazioa testuinguru bakoitzera egokitze ahalmena bereganatuko dute.



6.1. Wolfgang Amadeus Mozart. David Brubeck.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Teknologiarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- ☐ Ikasleei azalduko zaie David Brubeck eta Wolfgang Amadeus Mozarti buruzko horma-irudi bat egiten parte hartuko dutela hurrengo saioan. Lan horretarako, bi musikariei buruzko datu-uren bat eskuratzea eskatuko zaie. Ikasgelara informazio bikoizturik ekar ez dezaten, ohar-taraziko zaie horma-irudian zer jarri nahi den aldeztatik erabaki beharra dagoela eta diseinua pentsatu behar dela. Horri buruz hitz egin ondoren, ikasle bakoitzak zer ekarpen egingo duen zehaztu beharko du.
Hurrengo saioan, eskuratutako informazioaren berri emango du ikasle bakoitzak, eta horma-irudian idatzi edo itsatsiko du.
Amaitutakoan, gelan ipiniko da horma-irudia, eta musikarien eranskailuak dagozkien mar-koetan itsatsiko dituzte ikasleek.⁵
- ☐ Sakontzeko jarduera:
Irakasleak informazio osagarria eman diezaieke, edo beharrezko irizten zaien datuak erantsi.

⁵ Ikasleen liburua, 12. or.

6.2. -Pianorako 11. Sonata, “Rondo Alla Turca: allegretto”. (©9)

-Blue Rondo à la Turk. (©10)

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Sarrera gisa:

Rondo Alla Turca pieza sonata bateko azken mugimendua da; hirugarrena, hain zuzen.

Sonatak hainbat forma izan ditu musikaren historian, garaiazen arabera, baina Klasizismoan, nagusiki, musika-tresna bakarrerako konposatu ziren, hiru edo lau mugimenduko hezurdu-rarekin, zeinetan lehen mugimenduan musika-gaia aurkezten den, ondoren garatu, eta azkenik laburbildu.

Rondoa musika forma bat da. Rondoak sonataren azken mugimenduaren forma adierazten du. Bertan, musika-gaia aurkeztu eta beste gaiekin txandakatuz errepikatzen da.

Mozarten pianorako sonata baten azken mugimendua da *Rondo Alla Turca*, haren sonaten zatirik ezagunenetakoa. *Turkiar martxa* izenez ere ezaguna da, eta bera bakarrik jotzen dute, sarri, sonataren aurreko mugimenduak alboratuta.

- Jarraitu *Rondo Alla Turca*ren forma irudikatzen duen musikograma.

Gai bakoitzari harribitxi bat egokitu zaio; aztertu zergatik errepikatzen edo aldatzen diren.

- Entzun David Brubeckek egindako *Blue Rondo à la Turk*. (©10)

Bi musiken arteko konparaketa egingo da, irakasleak gidatuta eta talde osoaren partaidetza bultzatuz. Gogoetan, ikasleek arlo erritmikoari eta rondo formari arreta jar diezaieten bultzatuko du irakasleak. Ikasleak bi musika piezek sortu dieten inpresioa azaltzen saiatuko dira.

RONDO ALLA TURCA

Mov. 3 from Sonata No. 11, K. 331

Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)

Allegretto

The musical score is written for piano in 2/4 time. It begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The tempo is marked 'Allegretto'. The score is divided into systems of two staves each. Measure numbers 6, 13, 19, 25, and 30 are indicated at the start of their respective systems. The score includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings like *p* (piano), *ten.* (tenuto), *mf* (mezzo-forte), and *fz* (forzando). There are also trills marked with 'tr'. The score concludes with a double bar line and a repeat sign. Decorative elements include a black circle in measure 1, a grey rectangle in measure 10, a black circle in measure 14, a heart in measure 22, and a diamond in measure 28.

35

40

45

50

55

60

35

40

45

50

55

60

65

71

78

84

90

94

98

103

108

112

117

122

f

p

più f

ff

The musical score is written for piano and consists of six systems of staves. The key signature is two sharps (F# and C#). The notation includes various musical elements such as notes, rests, and dynamic markings. The first system (measures 98-102) features a melody in the right hand with eighth and sixteenth notes, and a bass line with eighth notes. The second system (measures 103-107) begins with a forte (*f*) dynamic and continues the melodic and bass patterns. The third system (measures 108-111) introduces a piano (*p*) dynamic and includes triplets in the right hand. The fourth system (measures 112-116) features a melody with triplets and a bass line with eighth notes. The fifth system (measures 117-121) continues the melodic and bass patterns. The sixth system (measures 122-125) concludes with a melody in the right hand and a bass line, ending with a fortissimo (*ff*) dynamic. The notation includes various musical elements such as notes, rests, and dynamic markings.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.
- ✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- ☐ Aztertu Mozarten eskutik jaso dugun turkiar martxa hau.



Pieza hau interpretatu aurretik, erantzun irakasleak egiten dituen galderei:

- Tempo (Allegretto).
- Ikurra (Sol ikurra).
- Konpasa (2/4) eta konpas kopurua (24). Hasiera anakrusikoa.
- Nota-irudiak eta isiluneak (beltzak, kortxea-bikoteak, kortxea eta haren isilunea, 4 kortxe-aerdi).
- Notak: nondik nora (mi₄-do₆).
- Esaldi edo esaldi-erdiak (3).
- Dinamika (p, mf).
- Artikulazioa (pikaturia, ligaturia, azentua).
- Zeinuak: errepikapen-zeinua, sostenitua.

☐ Ikasi doinu hau.

Ikasleak talde txikitan banatuko dira, eta talde bakoitzari esaldi bat egokituko zaio.

Talde bakoitzak bere esaldia ikasiko du. Behar izanez gero, laguntza eskatuko diote irakasleari.

Ondoren, irakaslearen gidaritzapean, pieza osoa abestuko dute, katean, talde bakoitzak dagokion zatia behar den denboran eginez.

☐ Lagundu Mozarten sonata, eta prestatu haren emanaldia.

Doinu hau laguntzeko, hainbat aukera eskain daitezke. Aukeratu, denen artean, ikastaldeari hobekien egokitzen zaiona edo zaizkionak, eta prestatu aukera horretan oinarritutako emanaldirako lan-proiektua:

- Interpretatu, eskolako edo ikasleek eskuratutako musika-tresnak edo gailu elektronikoak erabiliz. (Egokitu tonalitatea, musika-tresna transpositoreak aukeratuz gero)
- Asmatu taldean egiteko koreografia bat.
- Asmatu musikari egokitzen zaion letra, kontakizun edo antzerki bat.
- Asmatu sarrera, interludio, koda edo laguntza melodiko edo erritmiko bat.
- Ikus-entzunezko bitartekoak edo informatika-baliabideak erabiliz, egin musika laguntzeko edo girotzeko muntaia bat.
- Edozein lan-proiektu aukeratzen dela ere, grabatu entsegua, emanaldia edo kontzertua.



7. Jazz-taldea.

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Jazza Estatu Batuen hegoaldean sortu zen, New Orleansko estatuan nagusiki, Afrikatik esklabo gisa eramandakoen eta bertan jaioetakoen musika-ohiturak elkartzean. Musika-tresnak, doinuak eta harmoniaren erabilera mendebaldeko musika-tradizioan oinarritzen dira; eta erritmoa, soinu-produkzioa, esaldiak eraikitzeke era eta blues harmoniaren elementuak, berriaz, afrikar musikako elementuak dira.
 - Instrumentazioari dagokionez, aniztasun handia dago jazz-taldeen artean. Oinarrian, honako sekzio hauek ageri dira, beti: sekzio erritmikoa (bateria, gitarra, kontrabaxua eta pianoa) eta sekzio melodikoa (saxofoia, tronpeta, tronboi irristailuduna ...).
- Idatzi irudietan agertzen diren musika-tresnen izenak, eta esan zein ez den erabiltzen jazz-taldeetan.⁶

⁶ Lan-koadernoak, 9. or.: 8. Osatu musika-tresnen izenak, eta biribildu jazz bandetan parte hartzen ez duena.

• Ikasi martxa hau.

TURKIAR MARTXA

Allegro
mf

• Asmatu martxa hori laguntzeko ostinato bat.

D. C. al Fine

8. TXIRULA-KOADERNOA (*Turkiar martxa*).

OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

- ✧ Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- ✧ Elkarbizitzarako konpetentzia.
- ✧ Izaten ikasteko konpetentzia.

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- ✧ Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- ✧ Matematikarako konpetentzia.
- ✧ Arterako konpetentzia.
- ✧ Konpetentzia motorra.

IRADOKIZUN DIDAKTIKOAK

- Errepasatu txirularekin orain arte ikasi dituzun notak, batez ere goiko re eta fa sostenitua. Horretarako, era askotako jolasak antola daitezke: galdera-erantzunak (irakasleak eskatutako nota bat-beste nota bat; edo noten sekuentzia bat-beste sekuentzia bat), Do M eskala (bi taldeetan, talde bati nota batzuk eta beste taldeari beste batzuk jotzeko esanez), nota batzuk forte eta beste batzuk piano egitea, etab.
- Ondoren abestu doinua, banaka edo taldeka, kontuan harturik neurria, altuera, tempoa eta errepikapen-zeinuak. Abestia ikasteko metodologiari dagokionez, orain arte emandako hainbat baliabide erabil daitezke.

○ Ikasi martxa hau.

Orain, ikasi *Turkiar martxa*, txirularekin:



○ Lagundu martxa hau zuk asmatutako ostinatoarekin.

Ikasle bakoitzak martxa laguntzeko bere ostinatoa asmatuko du. Horretarako, kontuan hartuko dira piezan agertzen diren irudi erritmikoak eta haren neurria.

Ikasle bakoitzak bere ostinatoa jo ondoren, irakasleak bat aukeratuko du, talde osoak ikas dezan. Laguntza erritmiko hori zer baliabide erabiliz egingo den erabakiko da (gorputz-perkusioa, gelan eskura dauden objektuak, perkusiozko musika-tresnak...).

Ariketa burutzeko, banatu ikasleak bi taldetan (batek txirula jo dezan, eta besteak, perkusioa egin) eta interpretatu turkiar martxa.

1. UNITATEA

EBALUAZIO-FITXA

	Bai	Batzuetan	Ez
1.1. <i>Hagia Sofia</i> abestia.			
a) <u>Melodia barneratu du, eta afinatuz abesten du.</u>	☐	☐	☐
b) <u>Elementu erritmikoak barneratu ditu, eta erritmoari eutsiz abesten du.</u>	☐	☐	☐
d) <u>Hitzen esanahia ulertzen du, eta testua erraz gogoratzen du.</u>	☐	☐	☐
e) <u>Abestia ikasi du.</u>	☐	☐	☐
3.1. Musika-hizkuntzaren elementuak: erritmoa.			
a) <u>Errepasatutako elementu erritmikoak gogoratzen ditu.</u>	☐	☐	☐
b) <u>Bi-lauko, hiru-lauko eta lau-lauko konpasak ezagutzen, ulertzen eta ondo egiten ditu.</u>	☐	☐	☐
d) <u>Beltzaren baliokideak diren irudi multzoak ezagutzen eta egiten ditu.</u>	☐	☐	☐
e) <u>Bat-batean sekuentzia erritmiko txikiak asmatzeko gaitasuna du.</u>	☐	☐	☐
3.2. Musika-hizkuntzaren elementuak: melodia.			
a) <u>Errepasatutako elementu melodikoak gogoratzen ditu.</u>	☐	☐	☐
b) <u>Eskalak identifikatzen eta ulertzen ditu.</u>	☐	☐	☐
d) <u>Bitarteak ulertzen eta zenbatzen badaki.</u>	☐	☐	☐
e) <u>Doinuak entzundakoan, idatziz identifikatzen eta besteen artean bereizten ditu.</u>	☐	☐	☐
6.2. Mozart eta David Brubeck: Rondoa, turkiar erara			
a) <u>Musikaren (entzunez) eta irudien arteko lotura barneratzen du.</u>	☐	☐	☐
b) <u>Bi musika-adibideren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak atxikitzen ditu.</u>	☐	☐	☐
d) <u>Ikusmina du lanen testuingurua ezagutzeko.</u>	☐	☐	☐
e) <u>Jazz-talde bat zer den badaki.</u>	☐	☐	☐

Oro har

1. <u>Sormenez aritzen da jardueretan.</u>	☐	☐	☐
2. <u>Ondo moldatzen da gelako dinamikara eta antolaketara.</u>	☐	☐	☐
3. <u>Gustuko du musikaren eta dantzaren bidez interpretazio-jardueretan parte hartzea.</u>	☐	☐	☐
4. <u>Arte-adierazpenekiko interesa du.</u>	☐	☐	☐